



**Arartekoaren 1/2012 gomendio orokorra, urriaren 30ekoa.**

**Euskal Osasun Sistema/Osakidetzaren esparruan zerbitzu espezializatua eta ospitalea aukeratzea.**

## **I. Sarrera**

Zerbitzu espezializatua eta ospitalea aukeratzeko eskubidea osasuna babesteko eskubidea osatzen duten eskubide instrumental, osagarrien zati da. Osasun sistema publikoak erabiltzaileei eskaintzen dizkien aukerak dira, aldaketak eska ditzaten hasiera batean esleitu dizkieten baliabideetan.

Horretarako, beharrezkoa da oinarritzat hartzea aurretiko antolamenduari lotutako xedapena, herritarren osasun-premiei erantzuna emateko arreta antolatzeko balio duena. Ez dirudi arrazoizkoa denik egun dauden baliabideen barruan hautatzeko askatasuna plangintza eraginkorra gauzatzeko traba izan daitekeela. Horregatik, erabiltzaileek antolamenduaren inguruan aurkezten dituzten banakako aldaketa-eskaerak aztertu egin beharko dira antolamenduari eragin gabe erantzuna eman ahal zaien ikusteko.

Mahaigaineratzen dizkiguten kontuek agerian jartzen dute eskaera horiek beti ez dutela tratamendu egokia jasotzen. Erantzun horietako askok ez dute azaltzen, behar bezala behintzat, zergatik sistemak ezin dien erantzunik eman haien eskaerei. Arrazoiketa eza horrek bidea ematen du pentsatzeko aldaketa eskatzeko inguruabarrak ez zirela behar bezala aztertu, alegia, osasun-antolamenduaren aukerekin bateratzen saiatzean.

Halaber, antzeman dugu, batzuetan, Osadekitzak adierazi digula zerbitzu espezializatua edo ospitalea aldatzeko eskaera egin zutenei aipatu eskaera ukatu diela 1990eko urtarrilaren 25eko aginduan xedatutako prozedura jarraitu ez zutelako. Dena den, eskaera ukatzen duen jakinarazpenean ez zitzaion azalpen hori eman aldaketa eskatu zuenari.

Kexa hauekin daukagun ikuspegia da batzuetan ez direla eskaera horien arrazoiak kontuan hartzen eta, gainera, ukapen batzuek ez dutela jasotzen interesdunen aukerak izapidetzeko jarraitu beharreko prozeduren inguruko informaziorik. Horregatik, egokia iruditu zaigu gomendio hau egitea, erabiltzaileen eskaerak zerbitzu espezializatua eta ospitalea aukeratzeko eskubidearen gainean ordenamenduak ezartzen dituen xedapenei jarraiki izapidetu daitezten.





## II. Gogoetak

Osasunerako eskubidearen eskubide osagarri baten aurrean gaude, [Euskal Osasun Zerbitzua/Osakidetzako gaixoen eta erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren gutuna onartzen duen uztailaren 18ko 175/1989 Dekretuan](#) jasotzen dena. Arau horrek, [Euskadiko antolamendu sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeari](#) aurka egiten ez badio, eskubide orokorren atalean xedatzen du ospitalea eta zerbitzu espezializatua hautatzeko eskubidea, arauzko garapenak adierazi bezala <sup>1</sup>.

[Osasun eta Kontsumo sailburuaren 1990eko urtarrilaren 25eko aginduak](#) eskubide horren eskaerak bideratzeko prozedura ondoren garatu zuen. 2. artikulua haxe dio:

*“1. Edozein arrazoi dela bide, osasunbide zentru jakin batetan edo sorosketarako zerbitzu edo unitate batetan edo osakidetzaren antolaketaren arauera dagokiona ez den beste espezialista batek atenditzea nahi dezan gaixoak, etxeko bere medikuari eskatuko dio hori eta horrek, bere erizpide profesionalaren arabera eta sorosketaren antolaketa errespetzeko ahaleginak eginez beti, erreferentziakoz besteko diren gaixoak aukeratutako beste zentru edo mediku espezialistengana igorri ahal izango du gaixo hori.*

*2. Etxeko Medikuek, bere aldetik, bere kabuz eta gaixoaren adostasunez, gaixoa, erreferentziako bere ohizkoa ez den Osakidetzako beste ospitale, zerbitzu edo sorosketa unitatera igorri ahal izango du bere mediku-erizpidearen arabera, gaixoaren onurako izan dadinean.*

*3. Kasu guztietan, gaixoari buruz mediku espezialistak beharko dituen gaixoaren xehetasun klinikoak ahalik eta gehien espezifikatuak eduki ditzan, kontsultaarteko agiri bat beteko du Etxeko Medikuek.”*

Eskubideen eremuan ohikoa denez, bistakoa da kasu honetan ere muga batzuk errespetatzean datzala. Hautatzeko askatasuna plangintza eraginkorrerako traba

---

<sup>1</sup>Hautatzeko eskubide horri dagokionez, [8/1997 Legeak](#) 10. artikuluan haxe aipatzen du izaera instrumental eta osagarriko eskubide eta betebeharren gainean:

2.- *Herritarrak estaldura publikoko zerbitzu sanitarioetara heltzeko prozedurak benetako berdintasunprintzipioa garantizatuko du. Bestalde, prozedura horien arabera, antolakuntza-baldintzak jartzeko ahaleginak egingo dira, helburu bi lortzeko: herritarrek zerbitzu sanitarioak eta profesionalak aukeratzeko gaitasuna progresiboki zabaltzea eta herritarrek beren eskubide nahiz betebeharrei buruz behar duten informazioa ematea.*



izan ezin daitekeen bezala, administrazioak eskaerei emandako erantzuna ezin da izan praktikan hautatzeko eskubidearen edukia hustuko duena, antzu bihurtuz ordenamenduak herritarrei onartzen dizkien aukerak.

Osasunaren eremuan oinarritzat hartzen dugu herritarren osasun-premiei erantzuna emateko arreta antolatzekeo beharrezkoa dela aurretiko antolamendu-xedapena. Hortaz, arrazoizkoa dirudi erabiltzaileek antolamendu horren inguruan aurkez ditzaketan banakako aldaketa-eskaerak tamizatu edo aztertu daitezzen, antolamenduari eragin gabe aintzat hartu daitezkeen ikusteko.

Ikuspegi horretatik, beharrezkoa da hautatzeko eskubidea osasun administrazioak duen autoantolamendurako ahalmenarekin uzta dadin, osasun sistemaren funtzionamendua ahalik eta eraginkorra izan dadin.

Aldaketa eskatzeko interesa gerta daiteke mediku-gaixoaren arteko harremanak izan behar duen elkarrekiko konfiantzaren ezinbesteko alderditzat jo ditzakegun alderdietara bakarrik lotuta ez egotea. Beste arrazoi batzuk egon daitezke, irisgarritasun hobeagokoak, eskatzailearen inguruabar pertsonalak oinarri hartuta lekualdatzeko aukera gehiagoari lotutakoak, edo baita adibidez mendetasun gradu handia duten pertsonen arretaren familia-babesa bultzatuko duten bideen bilaketa ere, osasun arreta behar dutenean hain zuzen. Hala, 2011ko Eusko Legebiltzarrerako urteko txostenean mendetasun gradu handiko pertsonen arretaren inguruan familia-babesa sustatzeko ospitalez aldatzeko eskatu zuten pertsona batzuen egoera jaso genuen, hain zuzen, osasun arreta behar zutenean.

1990eko urtarrilaren 25eko aginduaren bitartez garatutako prozeduraren ondotik – alegia, familiako medikuaren esku-hartzea xedatzen duen horren ondotik- pentsa daiteke hautaketa funtsatzen duten arrazoiak medikoak direla. Gure ustez, aldaketa eskatzen duten pertsonen banakako inguruabarrak justifikatzen badute, osasun antolamenduak eragozpen formal batzuk alde batera uzteko aukera kontuan hartuko beharko luke, adibidez, erroldan jasota dagoen lekua ziozko lotura, arrazoa medikoa ez bada ere.

Gomendio honen xedea gainditzen du hizpide izan ditugun eskaerak nola baloratu behar diren aipatzeak.

Hortaz, adierazi dugunez, eskaera horiek antolamenduari lotutako osasun-premiekin batu behar dira eta hori antolamenduaren ahalmen diskrezionala aitortua duenak baloratu behar du; kasu honetan, Osadekitzak. Beraz, gomendio honen xedea da agerian jartzea zerbitzu espezializatua eta ospitalea hautatzeko eskaera behar bezala baloratu behar dela, eskaera horrek oinarri dituen inguruabarrak eta antolamenduaren barruan sartzeko aukera aztertuz.





Aurreko gogoetak ikusirik, egokia iruditu zait Euskal Osasun Zerbitzua/Osakidetzari honako gomendio orokor hau egitea.

## **GOMENDIO OROKORRA**

- 1 Osakidetzan ospitalea eta zerbitzu espezializatua hautatzeko eskaerak malgutasunez aztertu behar dira, osasun-antolamenduari lotutako premiak erabiltzaileen eskaerek oinarri dituzten inguruabarrekin uztartuz.
2. Ospitalearen eta zerbitzu espezializatuaren hautaketa arautzen duen 1990eko urtarrilaren 25eko aginduaren bidez ezarritako prozedura jarraitu ez dutela antzematen den eskaeretan, Osakidetzak interesdunei bide horren berri eman behar die.

